



2023SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2023/09/28

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2023/11

EGUNA: 2023/09/28

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:45

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbietta Egaña.

EH Bildu udal taldea

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurei dagozkien akta zirriborroak onartzea, hala badagokio.

2023ko ekainaren 17an, ekainaren 22an eta uztailaren 12an egindako osoko bilkuren aktak Udalbatzari aurkeztu zaizkio, onar ditzan.

Alkateak bertaratutakoei galdetzen die ez inork zerbait adierazi nahi ote duen aktei buruz.

Gilen Garcia Boyra, EH Bilduko bozeramaileak, adierazten du ekainaren 17ko aktan akats batzuk daudela berak eginiko hasierako hitzaldiaren transkripzioan, eta Idazkaritzari akats horien berri emango diola akta zuzendu dezan.

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu 2023ko ekainaren 17an, ekainaren 22an eta uztailaren 12an egindako osoko bilkurei dagozkien aktak, 2023ko ekainaren 17ko bilkurako aktan adierazitako zuzenketekin.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Gilen Garcia, EH Bilduko bozeramaileak adierazten du agintaldi honetako lehen ohiko osoko bilkura izanik, 200 Dekretutik gora zian direla aztertu beharrekoak. Hainbat zalantza Idazkaritzarekin argitu dituela, baina, hala ere, hainbat Dekretuen buruz informazio eskaera egin nahiko dutela.

Lehendabizikoa, 219. «Simon Berasaluze plazako 1 zenbakidun lokala udal bulegoetarako egokitzeko obren espedientearen onarpena.» Horren inguruan jakin nahiko luketela orain arteko prozedura zein izan den jakitea eta zer pauso aurreikusten diren, baita teknikarien txostenen berri izatea ere.

315. Dekretua, «Zezen plazako egur berrien horniketa.» Horren inguruan jakin nahiko luketela estra bat edo zezen plazaren konponketan aurreikusitako zerbait izan den.

321., «Entzunaldia ematea ISGA INMUEBLES, SAU eta MACERIBE, SL enpresei Miramareko xehetasun azterlana ofizioz berrikusteko espedientearen.» Espediente horretan eta, oro har, prozedura horren inguruan informatuta egotea nahiko luketela.

385., «Energia komunitatea sortzeko hastapenak: partaidetza prozesua eta instalazioen bideragarritasun azterketa.» Gai honetan pausoak eman ahala informazioa izatea eta parte hartzea eskatu nahi dutela.

Eta, azkena, 431., «Foru Kontratazio Zentralari atxikitzea: Posta zerbitzua.» Bat egiten dutela atxikipen horrekin, baina adierazi nahi dutela kezka dezente egon direla ziurtagirik behar ez zuten posta arruntan, Donostiatik kanpo gauden udalerrietan asko luzatzen zelako posta horren banaketa, eta, askotan, Udala bera posizio txarrean utzi dutelako eta eskatu beharko zela Aldundiak prozedura hori aldatzea eta ea zer baldintzatan egin behar ote den banaketa hori.

Alkateak azaltzen du eskatutako informazio guztiaren berri emango diola hurrengo astetan. Halaber, galdetzen du ea beste inork zerbait adierazi nahi ote duen.



2023SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2023/09/28

Bestelako adierazpenik ez dago, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2023ko trafikoko isunei buruzko Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez dago ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

4.- Izendatzea, hala badagokio, Udalbatzak hainbat erakundeetan dituen ordezkarien ordezkioak.

Alkateak azaltzen du 2023 uztailaren 12an eginiko bileran hainbat erakundeetako Udalaren ordezkariak izendatu zirela, eta, beste alderdiekin hitz egin ondoren aldaketa batzuk proposatzen direla. Hain zuzen, hau da proposamen berria:

<u>Erakundea</u>	<u>Titularrak</u>	<u>Ordezkoak</u>
Deba Musikal Patronatua	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka Allika	<ul style="list-style-type: none">Ainhoa Urbieta Egaña
Gipuzkoako Ur Partzuergoa	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren	<ul style="list-style-type: none">Anton Garay Berezibar
DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitatea	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka Allika	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren
Debabarrena Mankomunitatea	<ul style="list-style-type: none">Anton Garay BerezibarAinhoa Urbieta Egaña	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño OjangurenAsier Urain Buenetxea
Udal Eskola Kontseilua	<ul style="list-style-type: none">Monica de Prado Paniagua	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren
Kiroletako Udal Kontseilua	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren	<ul style="list-style-type: none">Monica de Prado Paniagua
DEBEGESA	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka Allika	<ul style="list-style-type: none">Anton Garay Berezibar
DEBEMEN	<ul style="list-style-type: none">Asier Urain Buenetxea	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren
EUDEL	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka Allika	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño Ojanguren
Itziar-Deba enpresa parkea	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka AllikaAsier Urain Buenetxea	<ul style="list-style-type: none">Jon Riaño OjangurenAnton Garay Berezibar
UEMA	<ul style="list-style-type: none">AlazneTxurruka AllikaAsier Urain Buenetxea	<ul style="list-style-type: none">Ainhoa Urbieta EgañaMonica de Prado Paniagua

	<ul style="list-style-type: none"> • Gilen Garcia Boyra • Aritz Larrañaga Unanue • Isidro Aristi Oruezabal 	<ul style="list-style-type: none"> • Anton Garay Berezibar • Itziar Irizar Beristain • Antxoka Elorza Altuna
Deba-Itziar Eskola Kirola	<ul style="list-style-type: none"> • Monica de Prado Paniagua 	<ul style="list-style-type: none"> • Jon Riaño Ojanguren
Lankidetzakontseilua	<ul style="list-style-type: none"> • Monica de Prado Paniagua • Oihana Irusta Careaga 	<ul style="list-style-type: none"> • Asier Urain Buenetxea
Gurutze Gorria	<ul style="list-style-type: none"> • Jon Riaño Ojanguren 	<ul style="list-style-type: none"> • Asier Urain Buenetxea

Gilen Garcia, EH Bilduko bozeramaileak, azaltzen du ulertzen duela Lankidetzakontseiluaren eta Deba Musikal Patronatuaren kasuetan, titularrak agertzen direla horrela jaso behar delako, baina gero, bai Kontseilua bai Patronatua osatzen direnean horiez gain egongo direla alderdi bakoitzeko ordezkari bana. Alkateak erantzuten dio baietz horrela dela.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du hainbat erakundeetarako Udalaren ordezkariak eta horien ordezkioak izendatzeko proposamena.

5.- Onartzea, hala badagokio, 2024 urterako taxien tarifak.

Udalbatzari aurkeztu zaio, AGITAX- GIPUZKOAKO TAXI ELKARTEak Debabarreneko eskualdean aplikatzeko tarifak berrikusteko proposamena, baita proposamenarekin batera igorritako Euskal Autonomia Erkidegoko autotaxien kostu ekonomikoen eta ustiapenaren azterketa.

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak, aho batez, 2024. urterako taxi-tarifak onartzen ditu. Taula honetan jasotzen direnak, hain zuzen:

2024ko HIRI BARRUKO TARIFA					
TARIFA 1*			TARIFA 2**		
Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua	Gutxieneko tarifa	Egindako kilometroa	Itxaron ordua
6,1298€	1,5350€	20,5166€	6,6747€	1,6988€	21,5736€

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

(*) TARIFA 1: Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) TARIFA 2 Tarifa hau egunero aplikatuko da 22:00etatik 7:00etara. Bai igande eta autonomia-erkidegoko eta tokiko araudian jaiegun diren egunetan 07:00etatik 22:00etara, baita larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

6.- Onartzea, hala badagokio, 2024 urterako ordenantza fiskalak.

Alkateak azaltzen du udal gobernuaren proposamena. Abuztuaren arteko KPIa %2,6ko izan dela, eta aurreikusiz urte bukaeraren arte, seguruenik, igoeraren bat egongo dela, %3ko igoera proposatzen dela, gastuak eta sarrerak orekatzeko eta gastu horiei aurre egiteko



2023SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2023/09/28

moduan egon gaitzen.

Igorritako dokumentazioan ikusten den bezala, gauza askotan ez dago igoerarik, izan ere, igoera zentimo batzuen inguruan gelditzen zen kasuetan, erabaki da igoerarik ez aplikatzea, eta kopuru bera mantentzea. Hilerraren erabilerari dagokionean, beila tokia erabileragatik ezarritako zenbatekoa jaitsiera nabarmena izango du zeren eta orain arte kobratzen diren 404 euroak 300 eurora jaitea proposatzen da, ez baitago bestelako zerbitzurik (harrera zerbitzurik, eta abar) eta prezio hori litzateke enpresa pribatuek kobratzen dutena eta egokitzeko beharra ikusten da. Bestalde, proposatzen da egun erdiko erabilera eskaintzea, eta erabilera araudian sartuko da egun erdi hori nola ikusten den.

Bestalde, sortu den arazoa da zaborren ingurukoa, Zaborren bilketa eta kaleen garbiketa Mankomunitateak kudeatzen ditu, eta zerbitzu horien igoera proposamena bertatik datorrena izaten ohi da. Debabarreneko Mankomunitatean oraindik ez dira datorren urterako tasak onartu, baina Debari dagokionez, %11,26ko igoera aurreikusten da zabor bilketarako, eta kale garbiketarako, %6ko igoera. %11,26ko igoera horrek, Udalari 2023an izandako gastuarekin alderatuta 80.000 euroko gastu igoera suposatzen dio, eta kale garbiketari dagokionez, 30.000 euroko igoera. Horrela, nahiz eta gainerako guztietan %3ko igoera proposatzen den, zabor bilketarako, %11ko igoera planteatzen da, gastu igoera horiei aurre egin ahal izateko.

Gilen Garcia, EH Bilduko bozeramaileak, azaltzen du eurek ere azken unean izan dutela mankomunitateak proposatzen duen igoera horren berri, eta, zoritxarrez ez dutela irizpen teknikoen edo igoeraren zergatien berririk. Horregatik, eskertuko zutela Debako Udala Mankomunitatean ordezkatzeko dutenek azaltzea zertan oinarritzen den igoera, badakitela lizitazio bati lotuta dagoela, eta beste alde batetik, GHKrekin dagoen loturaren menpe dagoela, baina, kezka sortzen diela ez jakiteak ea igoera puntual bat ote den, edo GHKren aldetik igoera handiagoa izateko aukera ba omen dagoen. Bestalde, alternatibak aztertzea eskatzen dute, hala nola ordainketa hori bi urtetan egin ahal izateko, beste eskualde batzuetan aztertzen ari diren bezala, herritarren esku utzi gabe bat bateko igoera, nahiz eta Udalak igoera horren zati bat bere gain hartu beharko zukeen. Badakitela hori ez dela Udalak bakarrik erabaki dezakeen zerbait, Mankomunitatetik datorren zerbait izaten delako, eta arduraz jokatu nahi dutela, baina informazio gehiago behar dutela euren postura zehazteko.

Alkateak azaltzen du Mankomunitatetik jasotako informazioaren arabera igoerak arrazoiak bat baino gehiago direla. Alde batetik kosteen igoera, pandemiako urtetan ez dela igoerarik aplikatu egoera berezi bat zelako, bestetik, pertsonalen igoera, eta behar jakin batzuei aurre egiteko beharra (kontenedore berriak, eta abar) dela eta, igoera hori izan behar zuela. Mankomunitateari helarazi zaiola igoera hori ez dadila izan hain handia, %6 edo 7koa izatea eta hurrengo urtera pasatzea gainontzekoa, baina datorren hilaren arte ez da horren inguruko erabakia hartuko, Mankomunitatean atzo egon zen bileran ez baitzen inolako erabakirik hartu

tasen inguruan, eta datorren hilerako gelditu zen. Baina, gaur ordenantza fiskalak onartzen ez badira, urtarrilaren 1ean ezin izango ditugu izan ordenantzak eguneratuta, horregatik, proposamena da %11ko igoera onartzea.

Anton Garayk azaltzen du Mankomunitatekok prest daudela herriz herri etortzeko azalpenak ematera

Gilen Garciak adierazten du hori guztia ondo dagoela, baina duten kezka dela Mankomunitatean junta bat dagoela, alderdi guztiek osatzen dutena, baina junta bata dagoen bezala, gobernu bat ere badagoela, eta garrantzitsua litzatekeela hori juntan erabakitzen ez bada beste bide batzuk bilatzea ahalik eta bideragarriena izateko, azalpenak "a posteriori" ematea ez zaiela modurik egokiena iruditzen. Adibide gisa, jakin dutela Sorailuzeko Udalak urriaren 10rera arte atzeratu duela plenoa, mugak daudelako aldaketak urtarrilaren 1erako indarrean sartzeko, eta euren kezka hori dela, hutsean onartzea gehiegizkoa iruditzen zaielako.

Bestela, adierazi nahi dutela, orokorrean, ados daudela aldaketa proposamenarekin, bukaerako atalean agertzen diren zezen ikuskizunetarako sarrerak eta proposamen bat igorri zuela, eta jakin nahiko dutela ea proposamen horiek txertatzeko asmoa ote dagoen.

Alkateak erantzuten du ez dutela aurreikusten zezenketarako prezio igoerarik, eta gainera, proposatutako igoera oso altua iruditzen zaiela, eta prezioak mantentzearen alde daudela.

Gilen Garciak adierazten du Mankomunitatearen igoera %11 horretan uzten bada, abstentziora joko dutela.

Alkateak erantzuten du ez dakiela Mankomunitateak noiz egingo duen hurrengo bilera, baina normalean, hilaren bukaeran izaten ohi direla, eta erabaki hau urriaren 10an ere, ez dela jakingo azken erabakia zein den.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko zazpi (7) botorekin eta sei (6) abstentziorekin, onartzen ditu 2024 urterako ordenantza fiskalak.

7.- Behin betiko onartzea, hala badagokio, Goimek S.Coop. enpresak aurkeztutako Itziar-Deba-enpresa parkeko 18.2 partzelako xehetasun-azterketa.

2023URED0001 espedientean aztertu da Goimek S. Coop. enpresak sustatutako Debako Itziar Enpresa Parkeko 18.2 partzelaren xehetasun-azterketa.

2023ko uztailaren 16ko, Alkatezaren 336/2023 Dekretuaren hasierako onespina eman zitzaion aipatutako xehetasun-azterketari.

Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitun laneguneko epean Berria egunkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta El Diario Vasco egunkarian dagozkien iragarkiak argitaratuz, uztailaren 25ean, 26an eta 27an, hurrenez hurren, eta jendaurreko epean ez da inolako iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak aldeko txostena egin zuen. Txosten hori 2023ko abuztuaren 11an jaso zen erregistro elektronikoan.



2023SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2023/09/28

Udal Zerbitzu teknikoek. 2023ko irailaren 14ko txostenean, xehetasun-azterketa behin betikoz onartzearen alde agertu ziren, eta Lurraldetasun Batzordeak, 2023ko irailaren 20an egindako ohiko bileran, behin betikoz onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Horiek horrela, Udalbatzak, aho batez, erabakitzen du:

Lehena.- Behin betikoz onartzea Goimek S.Coop. enpresak aurkeztutako Itziar-Deba-Enpresa Parkeko 18.2 partzelako xehetasun-azterketa.

Bigarrena.- Erabaki honen berri sustatzaileari ematea, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzea.

8.- Onartzea, hala badagokio, Sorozabal pasealekuko begiratokiaren okupazioaren emakidaren baldintzak.

Ikusita Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko ekainaren 12ko Ebazpenean jasotako baldintzak, eta Lurraldetasun Batzordeak, 2023ko irailaren 20an egindako ohiko bileran, baldintza horiek onartzearen aldeko irizpena, Udal batzak, aho batez, hau erabakitzen du:

Berariaz onartzea, Debako (Gipuzkoa) Santiago eta Lapari hondartzen artean dagoen Sorozabal pasealekuko begiratokia legeztatzeko eta, ondoren, sendotzeko, itsas-lehorreko jabari publikoko ehun eta hirurogeita bat (161) metro koadro okupatzeko emakida emateko baldintza eta preskripzioak, hain zuzen, Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko ekainaren 12ko Ebazpenean jasotakoak. (CNC02/21/20/0002) (SC/CBP/498).

9.- Onartzea, hala badagokio, Debako ibaiaren gaineko zubiaren okupazioaren emakidaren baldintzak.

Ikusita Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko ekainaren 12ko Ebazpenean jasotako baldintzak, eta Lurraldetasun Batzordeak, 2023ko irailaren 20an egindako ohiko bileran, baldintza horiek onartzearen aldeko irizpena, Udal batzak, aho batez, hau erabakitzen du:

Berariaz onartzea Debako eta Mutrikuko udal-mugarteetan (Gipuzkoa), Deba itsasadarraren gaineko zubia legeztatzeko eta birgaitzeko, itsas-lehorreko jabari publikoko bederatzehun eta hogeita sei (926) metro koadro okupatzeko emakida emateko baldintzak eta preskripzioak, hain zuzen, Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2023ko ekainaren 12ko Ebazpenean jasotakoak. (CNC02/21/20/0009) (SC/CBP/498)

10.- Onartzea, hala badagokio, ikasgelaren erabilera araudia.

Udalbatzari aurkeztu zaio, Astillero kaleko 10. zenbakiko behe solairuan kokatutako ikasgela publikoaren erabilera-arauak, hala badagokio, onar ditzan.

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait azaltzeko ote duen gai honen inguruan.

Gilen Garciak adierazten du hasieran zalantzak izan bazituzten ere, bidea egin ahala ikusiko dela zer erabilera duen ikasgela horrek, eta pozten direla aurreko agintaldian hasitako proiektu hori aurrera doala ikusita.

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu Astillero kaleko 10. zenbakiko behe solairuan kokatutako ikasgela publikoaren erabilera-arauak.

Arau horiek, akta honen eranskinean jasotzen dira.

11.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

11.1. Gilen Garciak azaltzen du hainbat galdera dituztela gai beraren inguruan.

Azken hilabete hauetan erabaki garrantzitsuak hartu direla Udalaren antolaketari dagozkienak, eta antolaketa eredu berri bat martxan jartzea erabaki da, sekulako aldaketa dakarrena, eta joan den agintaldian ere aurreikusten zena, baina, hala ere, pena sentitzen dutela erabaki horiek hartzerakoan eurekin kontrastatu ez izana. Aurreko agintaldiaren amaieran hitz egin zutela denon artean hitz egin beharreko zerbait izango zela, baina, ulertzen badute ere gobernu erakunde baten sartu berritan erabaki asko hartu behar izaten direla, zoritxarrez, erabakien berri eman zaiela, baina aurretik iritzia galdetu gabe, eta iruditzen zaiela zer esanik badutela. Hortaz, eskertuko luketela bestelakotan parte izatea ahal den heinean.

Argitu nahiko luketela zeintzuk izan diren Udalaren antolaketa berrirako erabili diren irizpideak. Izan ere, hainbat batzordeetan Udal gobernuaren barruan bi ahots egon dira, eta argitu nahiko lukete zenbat batzorde izango diren, bost ala sei? Itxiak ala irekiak izango diren? Gonbidatuak zein irizpideen arabera izango diren? Partaidetzarako eta kodesiziorako espaziorik egongo ote den? Eta hor, zehazki, zein espazio izango da EH Bildurentzat? zein eragileentzat? eta zein herritarrentzat?

Azpibatzerdeen maiztasuna galdetu dugu, baina erantzuna “beharraren arabera” izan da. Behar hori, zeinek zehazten duen, erratikoa al da? Hau da, zer behar ikusten duen bakoitzak, eta eurek behar bat ikusten dutela antolaketa horretan parte izateko, batez ere, ikusita eurek nola egin duten lan, eta aurreko agintaldian beste alderdiek nola eskatu zieten lan egiteko. Eta jain nahi dute ea konpromisoren bat har daitekeen azpibatzerdeei nolabaiteko maiztasuna emateko, eurek ere gaiaren inguruan eztabaidatzeko aukera izan ditzaten, eta ez bakarrik berri eman eta alde edo kontra bozkatzeko, iruditzen zaielako eztabaida eta herriko dinamika politikoa pobretu egiten dela.

Eta azkenik, antolaketarekin lotuta, Auzo Udalaren ordezkariak zein paper izango duten, batzordeetan, deialdietan, hau da, horretan nola funtzionatuko den, ez baitute izan horren berririk.



2023SPLE0011

11.bilera: OHIKOA 2023/09/28

11.2. Tokiko Gobernuaren Batzordearen funtzionamendua nola izango den? Publikoa ala pribatua izango den? Aktak eta deialdiak eskuratzeko aukera izango ote duten? Gonbidatu gisa parte hartzeko eskubiderik izango ote duten?

11.3. Eraikin publikoak berritzeko Next Funtzen deialdi bat dago non inbertsioaren parte handi bat lortu daitekeen, Udaletxea eta Gizarte Etxea berritzeko beharra ikusten dutela, eta jain nahiko lukete ea proposamenen bat ote dagoen, eta horren inguruan lanketa bat egiteko prestutasuna ote dagoen.

11.4. Kontratazio alorrean, hiru gaien buruzko informazioa nahiko luketela.

Alde batetik, jakin izan dute arkitekto aholkulariaren kontratazioa bertan behera utzi zela eta arkitekto aholkulari berri bat etorriko dela, eta jakin nahiko lukete zein baldintzatan, zer kostua izango duen, zer zerbitzu emango dituen, eta zer irakurketa egiten den horren inguruan.

Era berean, jakin nahiko lukete zer asmoak dauden zerbitzu juridikorako eta aldaketa egon bada, edo egongo bada, horren berri izatea.

Eta amaitzeko, jaietako komunikazioan beste batzuk ikusi zirela lanean eta aurrekonturik ikusi ez dutenez, eta dekretuetan ere ezer ikusi ez dutenez, jakin nahiko lukete hori nola egin den, zer kostuekin eta zer partidaren kontura.

Alkateak, horrela erantzuten dio, hurrenez hurren.

11.1. Berrantolaketari dagokionean, Eudelek egindako proposamena jarraitu dela. Eudelek proposatzen duela batzorde guztiak hiru batzordetan biltzea: Antolakuntza batzordea, Herritartasun batzordea, eta hirugarrena, Lurraldetasun batzordea. Orain Debarekin egindako akordioaren ondorioz, hiru batzorde nagusi horietatik bi batzorde atera zirela: bata Turismoa eta bestea, Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna. Hortaz, bost batzorde desberdin daudela.

Batzordeak itxiak izango direla, eta batzorde horietan parte hartzeko aukera hauek dutela: EAJ-PNVren aldetik, batzorde bakoitzerako izendatutako bi zinegotzi; EH Bilduren aldetik, bakoitzerako izendatutako bi zinegotzi; eta Orain Debatik, dagoen zinegotzi bakarra. Batzordetan hartu beharreko erabakitarako eta bozketarako, alderdi bakoitzak plenoan duen errepresentabitae bera izango du, ordezkari bakarra agertuta ere, horrek izango ditu alderdi horri dagozkion boto guztiak.

Azpibatzerdeak bakarrik aurreikusten dira kasu konkretu eta jakin batzuetarako, eta ez dira ikusten normalean erabiltzeko tresna bezala. Adibidez, orain aurrekontuekin hasi beharko da, ba azpibatzerde berezi bat egongo da, gai hori lantzeko, proposamenak biltzeko, eta, batzorde nagusira gaia eraman aurretik denon artean landu ahal izateko. Eta horrela funtzionatuko da beste gaietan ere, baldin eta gai horrek lanketa bereziren bat eskatzen badu, eta horietan, zinegotziak eta alderdiek aukeratutako pertsonak ere parte hartu ahal izango dute.

EH Bilduk eta herritarrek horietan guztietan izango duen espazioari buruz, herritarrek parte hartu ahalko dute azpibatzerdeak eratzen diren kasuetan. Erabaki batzuk hartzeko orduan herritarrei ere horren inguruko iritzia eskatu zaie. Eta EH Bilduri dagokionean, alkatearen ateak zabalik dituztela eta astean ben bilera bata hitzartuta dutela. Asmoa informazio guztia ematea dela eta asteko bilera horietan zerbait planteatzeko beharra ikusiz gero, esate besterik ez daukala.

Eta Auzo Udalari dagokionez, auzo alkatearekin egon dela eta berarekin ere hitzartuta duela aldizkako bilerak. Eskatu zela eta horrela egingo dela, batzordeen eta bilera guztien deialdiak eurei ere bidaltzea, eta parte hartzeko aukera izango dute Auzo Udalari zuzenean eragin balio.

11.2. Tokiko Gobernuaren Batzordearen funtzionamenduari dagokionez, organo horrek, legez, hamabost egunetik behin izan beharko luke bilera. Aktak eta deialdiak jasoko dituztela, baina itxia izango da eta bertan Tokiko Gobernuaren Batzordea osatzen duten zinegotziek baino ez dute parte hartuko.

11.3. Eraikin publikoak berritzeko Next Funtsen deialdiaren berri badutela, ez dagoela proiektu berri bat egiteko, baina badagoela udaletxerako proiektu bat, eta aztertzen ari direla ea proiektu hori nola aprobetxatu daitekeen.

11.4. Arkitekto aholkulariaren harira, Saioak amatasun baja hartu behar zuen eta galdetu ziola ez zer asmoa zuen udal gobernu berria. Zerbitzua bertan behera geldituko zela adierazi ziola, eta adostasuna azal zuen. Hemendik aurrera Eneko Plazaola izango dela arkitekto aholkularia, Astean behin etorriko dela, printzipioz asteazkenetan, eta hemendik urte bukaera bitartean kontratu txiki baten bitartez egingo dela kontratazioa, eta aztertu beharko dela nola egiten den kontratazioa urtarrietik aurrera.

Zerbitzu juridikoei dagokionez, orain zerbitzu hori ematen ari direnek epaitegietan dauden kasuekin jarraituko dute horiek amaitu arte, baina sostengu juridikoa emango duen aholkularia Angel Oyarzun izango dela. Egiten duen lanaren arabera minutak aurkeztuko ditu eta horien arabera, hartu beharko da dagokion erabakia.

Eta jaiaren inguruko komunikazioaren harira, momentu honetan Mudumira daramala komunikazio gaiak. Enpresa batek eskaintza bat egin zuela jaietako erreportaje berezi bat egiteko, eta Mundumira enpresak Udalari zerbitzua emateko kontratatuta duen langileak esan zuela berak egin zezakeela erreportaje hori merkeago, eta berari esleitu zitzaioela.

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:45ean amaitzen da Osoko Bilkura.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

